



Berriatua, II Nesken Topaketa Internazionalerako eszenatokia

Igande honetan elkartuko dira leku ezberdinetako 40 neska inguru, guztiak elkarrekin Zesta Puntaz gozatzeko asmoz

Igande honetan, Berriatuako Mendibarren pilotalekuan jokatuko dira Xistera Proiektuak antolatzen dituen Nesken II. Topaketa Internazionalak. Iazko arrakasta ikusirik, berriz ere errepikatzea erabaki du Xisterak, eta horrela, aurten neskekin antolatu diren ekintza ezberdinei amaiera ezinhobea emanaz. Goiz eta arratsaldeko ekitaldiak izango dira, hau da, guztien artean igandekoa Nesken Zesta Puntaren festa bilakatu nahian.

Guztira 40 neska inguru elkartzea espero da, izan ere oraindik batzuk falta dira baieztatzeko. Leku ezberdinetatik helduko dira topaketa berezi hauetara, besteak beste Bizkaitik (Markina-Xemein, Berriatua, Ereño), Gipuzkoatik (Andoain, Tolosa, Mutriku eta Donosti), Arabatik (Gasteiz), Iparraldetik (Donibane Lohitzune) eta Kataluniatik (Bartzelona) etorritakoak izango dira igandean galtza zuriz jantzita izango diren pilotariak.

Ekitaldiak egun guztian zehar izango dira. Goizeko 10.00etan hasiko dira ekintzak. Lehenik, berotzeko asmoz, jolas batzuk egingo dituzte, betiere Zesta Punta oinarritzat hartuz. Horrela, Zesta-Puntarekin jolas ezberdinak egin daitezkeela erakutsi nahi da, eta horrela, euren klubetan ere erabili ahal izateko. Gorputza berotu ondoren, partidak jokatzeko txanda izango da. Jokatu dituzten partidetan orain arte erabilitako formatu berean jokatu dituzte, kiniela formatuan. Hau da, hiru maila ezberdinetan bananduko dira pilotariak, eta denak denen aurka jokatu dute bikoteetako batek hamabost tanto egin arte.



Kinielak jokatu eta gero, pilotariak elkarrekin bazkaltzera joango dira, arratsaldeko ekitaldietarako prestatzeko. Horrela, arratsaldeko ekitaldietan, berriz ere jolasak izango dira protagonista. Izan ere, arratsaldeko lauretan hasiko diren ekitaldietan, jolasek garrantzi handia izango dute, horrela baita neskek Zesta Puntaz gozatzeko modurik onena. Jolasez gain, hainbat sorpresa izango dira neskenentzat. Amaitzeko, iaz bezala, parte hartu duten neska guztiak batera, II. Nesken Topaketa

Internazionalerako argazkia aterako da, beste urte batez, neskek urtean zehar egin duten lanaren erakusleho izan dadin.